

Zortziarrena: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, 2020ko abuztuaren 15ean 17/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Hamargarrena: 2020ko abuztuaren 19an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emondako Aginduaren eranskina aldatzen dauen Agindua emon eban.

Argudioak

Lehenengoa: 21/2020 Errege Dekretu-legeak honakoa xedatzen dau:

6. artikuluan: "Uso obligatorio de mascarillas.

1. Las personas de seis años en adelante quedan obligadas al uso de mascarillas en los siguientes supuestos:

a) En la vía pública, en espacios al aire libre y en cualquier espacio cerrado de uso público o que se encuentre abierto al público, siempre que no resulte posible garantizar el mantenimiento de una distancia de seguridad interpersonal de, al menos, 1,5 metros."

13. artikuluan: "Actividades de hostelería y restauración.

Las administraciones competentes deberán asegurar el cumplimiento por los titulares de bares, restaurantes y demás establecimientos de hostelería y restauración de las normas de aforo, desinfección, prevención y acondicionamiento que se determinen.

En cualquier caso, deberá asegurarse la adopción de las medidas organizativas que resulten necesarias para evitar aglomeraciones tanto dentro del establecimiento como en los espacios de terrazas autorizados y garantizar que clientes y trabajadores mantengan una distancia de seguridad de, al menos, 1,5 metros; Cuando no sea posible mantener dicha distancia de seguridad, se observarán las medidas de higiene adecuadas para prevenir los riesgos de contagio."

16. artikuluan: "Otros sectores de actividad.

Las administraciones competentes deberán asegurar el cumplimiento por los titulares de cualquier otro centro, lugar, establecimiento, local o entidad que desarrolle su actividad en un sector distinto de los mencionados en los artículos anteriores, o por los responsables u organizadores de la misma, cuando pueda apreciarse riesgo de transmisión comunitaria de COVID-19 con arreglo a lo establecido en el artículo 5, de las normas de aforo, desinfección, prevención y acondicionamiento que aquellas establezcan.

En todo caso, se deberá asegurar que se adoptan las medidas necesarias para garantizar una distancia interpersonal mínima de, al menos, 1,5 metros, así como el debido control para evitar las aglomeraciones. Cuando no sea posible mantener dicha distancia de seguridad, se observarán las medidas de higiene adecuadas para prevenir los riesgos de contagio"

Bigarrena: Osasun sailburuak abuztuaren 19an emondako aginduan honakoa xedatzen da:

1.3 artikuluan: "1.3.1.- Pertsonen arteko tarte edozein dela ere, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan, bai erabilera publikoko gune itxietan edo jendearentzat irekita dauden lekuetan, eta espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu daitekeenean. Salbuespen izango dira agindu honetan aurreikusitako kasuak, bai eta COVID-19ak eragindako osasun-

2



Agiri hau bermeokoa da eta udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzen du.
Kodea:
07E4CC04C03D00J3E7B1A4W2D1

Sinadura eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 20/08/2020
CN=154 izenpean ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A. C=ES - 20/05/2020 09:29:35

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0948
Data: 29/07/2020
Lekua: Bermeo
Erregistro unitatea:
Erregistro nagusia



krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuak ere.

(...)1.3.3.- Desgaitasuna, mendekotasuna, gaixotasuna edo arnasa hartzeko zailtasuna dela-eta aipatutako 21/2020 Errege Lege Dekretuan oinarrituta maskara erabiltzetik salbuetsita dauden pertsonen kasuan, gorabehera hori dokumentatu ahal izango dute, behar den moduan, desgaitasun- edo mendetasun-maila egiaztatzen duen dokumentu baten bidez, edo mediku-ziurtagiri baten bidez, zeinaren ordez aurkeztu ahal izango baita eraginpeko pertsonaren edo haren tutorearen erantzukizunpeko adierazpen bat. Hori ez da eragozpen izango erantzukizunak eskatzeko, adierazpenaren zehaztasunik ezagatik.

(...)1.3.5.- Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetan, tabernak eta txokoak barne, maskara erabiltzeko betebeharrak hori jateko edo edateko unean bakarrik kentzen da. Bestela, erabili egin beharko da.

(...)1.3.8.- Derrigor maskara behar bezala erabili behar da, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estaliz.

1.3.9.- Erabili beharreko maskara motak ez du arnasa egiteko balbularik izan beharko, salbu eta maskara mota hori gomendatuta dagoen erabilera profesionaletan.

1.3.10.- Establezimendu, espazio edo lokalen titularrek bermatu beharko dute beren espazioetan bete egiten dela betebeharrak hori.”.

2. artikuluan: “(...) 2.2.- Jarduera ekonomikoaren titularrak edo, hala badagokio, zentro, instalazio, erabilera publikoko espazio eta erakundeen zuzendariak edo arduradunak ziurtatu beharko du garbiketa- eta desinfekzio-neurri egokiak hartzen direla agindu honetan aipatzen diren establezimendu, lokal, instalazio edo espazioen ezaugarrietarako eta erabilera-intentsitaterako.

(...) 2.4.- Ezin izango da erre bide publikoan edo aire zabaleko espazioetan, ezin bazaio pertsonen arteko 2 metroko gutxienezko distantziari eutsi. Tabakoa arnasteko beste edozein dispositiboren erabilerrari ere aplikatuko zaio muga hori, hala nola zigarrata elektronikoei, lurrungailuei, ur-pipei, pipei edo antzekoei.”.

3. artikuluan: “ 3.1.-Edukiera kontrolatzearen arloko neurriak.

3.1.1.- Establezimenduek, instalazioek eta lokalek gehieneko edukiera adierazi beharko dute jendaurrean, eta edukiera horretan langileak ere jasoko dira. Haien barruan edukiera eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen direla ziurtatu beharko dute, eta edukiera zenbatzeko eta kontrolatzeko prozedurak ezarri beharko dituzte, inoiz ere gainditu ez dadin.

3.1.2.- Pertsonen zirkulazioa antolatzeko eta espazioak banatzeko orduan, pertsonen arteko segurtasun-distantziari eusteko ahalegina egin beharko da. Ahal den neurrian, ibilbideak ezarriko dira hezeroen eta erabiltzaileen zirkulazioa zuzentzeko eta gune jakin batzuetan, bai barrualdeetan bai kanpoko aldeetan, pertsonen pilaketak eta haien arteko kontaktua saihesteko. Bi ate edo gehiago daudenean, sarrerarako eta irteerarako erabilera desberdina ezartzen saiatuko da, pilaketak sortzeko arriskua murrizteko.

(...) 3.8.- Ostalaritzako lokalak eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak.

3.8.1.- Edukieraren muga kentzen da, baldin eta bermatzen bada 1,5 metroko distantzia fisikoa dagoela mahaien artean edo, hala badagokio, mahai-multzoen artean. 1,5 metroko distantzia hori mahaietatik edo mahai-multzoetatik gertuen dauden pertsonen artean neurtuko da. Gehieneko okupazioa 10 pertsonakoa izango da mahai edo mahai-multzo bakoitzeko. Horretarako erabiltzen den mahaiak edo mahai-multzoak pertsona kopuruaren araberakoak izan behar dute, eta ahalbidetu behar dute pertsonen arteko gutxienezko segurtasun-distantzia errespetatzea. Lokalaren barruan, gehienez ere 60 pertsona egon daitezke aldi berean. Gehieneko kopuru hori establezimendu horretako jangela edo espazio independente bakoitzerako da. Puntu honetan adierazitako distantziaren muga ez daie aplikatuko bizikidetzaren unitate bereko kideei.



3.8.2.- Baimenduta dago barrura sartzea eta barran zerbitzua ematea, betiere bezeroen edo bezero-taldeen artean 1,5 metroko distantzia fisikoa mantenduta, eta denbora guztian eserita egon beharko dute. Koktelak eta buffetak egin daitezke, gehienez ere 10 laguneko taldeetan. Betiere ziurtatu beharko da bezeroen arteko segurtasun-tarte egokia mantentzen dela, bai establezimenduaren barruko barran eta mahaietan, bai establezimenduaren kanpoaldean, eta bezero edo bertaratu guztiek eserita egon beharko dute. Puntu honetan adierazitako distantziaren muga ez zaie aplikatuko bizikidetzeta-unitate bereko kideei.

3.8.3.- Ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruz indarrean dauden osasun-jarraibideekin bat etorritik, egungo egoerak eta agindu honen indarraldiak irauten duten bitartean, ez da ordutegiak luzatzeko baimen berririk emango jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren euskal erregelamenduaren 37. artikulua babescan, eta eman direnak ondorioz gabe utziko dira.

3.8.4.- Ostalaritzako, jatetxeetako, txokoetako eta elkarte gastronomikoetako establezimenduek eta zerbitzuek goizaldeko 01:00a baino lehen itxi beharko dute, eta 00:00etatik aurrera ezin izango da bezerorik sartu, ez eta kontsumiziorik jarri ere. Lokalak itxita egon beharko du jendearentzat, eta ezin izango da berriro ireki 06:00ak baino lehen. Neurri horiek asteko egun guztietan aplikatuko dira, jaiegunak barne.

3.8.5.- Aurreko puntuan ezarritako ordutegi-mugak ez zaizkie aplikatuko erragaiak txikizka eta etengabeko zerbitzuan banatzen dituzten zerbitzuguneetako ostalaritza-zerbitzuei. Zerbitzuguneen titularrek bermatuko dute instalazioetako komun- eta ostalaritza-zerbitzuak eskuragarri egongo direla garraio profesionaleko zerbitzuak ematen ari diren pertsonentzat soilik. Zerbitzu horien artean, honako hauek egongo dira: catering-zerbitzuak, sukaldea duten establezimenduetan (sukaldea irekita egon ahal izango da); ostalaritza-zerbitzuak, edo prestatutako janaria saltzeko makinak. Zerbitzu horietan ezin izango da alkoholdun edaririk saldu, eta ezin izango dute beste zerbitzurik eskaini aurreko puntuan adierazitako ordutegi mugatueta, eta gehienez ere hamar laguneko edukiera izango dute.

(...) 3.26.- Diskotekak eta gaueko aisialdiko gainerako establezimenduak.

Establezimendu hauen itxiera deklaritzen da: Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan III. eta IV. taldeetan sailkatutakoak."

Hirugarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikulua araber, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkurari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

Erabagia

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: COVID-19a ugaltearen ondorioz sortutako osasun-alarma dala eta, 2020ko abuztuaren 19tik aurrera, ostalaritza establezimenduetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurri honek onartzea:

- Ezingo da zutik kontsumitu, ez taberna barruan ez kanpoaldean be. Mahaietan jesarrita kontsumitu beharko da derrigor; eta jesarrita dagozan pertsona taldeen arteko gitxieneko distantzia (1,5 m.) bermatu beharko da.
- Mahaien edo mahai multzoen gehieneko okupazioa 10 pertsonakoa izango da.



Agiri hau beneratzea dala udalaren egoitza elektronikoz egiazta aha: dozu
Kodea:
07E40004C03C00J3E7B1A4W2D1

Sinaduren eta daten

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 20/08/2020
CN=Isa izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/08/2020 09:29:35

EXPEDIENTE ::
2020ICA_DEK0948
Data: 29/07/2020
Lekua: Bermeo
Erregistro unibertsal
Erregistro nagusia







- Ahoa estaltzeko maskalira erabili beharko da, jan eta edateko unean izan ezik.
- Barran jesarrita kontsumitu ahal izango da beti be pertsona edo pertsona taldeen arteko gitxieneko distantzia (1,5) betetzen dala bermatuta.
- Establezimientuen barruan 60 pertsona egon ahal izango dira gehienez, beti be aurretik zehaztutako gitxieneko distantziak bermatuta eta jesarrita.
- Koktel edo buffetak antolatzekotan, 10 parte hartzaileentzat izango dira gehienez, jesarrita izango da, eta pertsona multzoen arteko gitxieneko distantzia bermatu beharko da (1,5 m).
- Debekatuta dago erretzea, gailua edozein dala be, 2 metroko distantzia bermatu ezin bada.
- 00:00etatik aurrera ezingo da bezero barririk hartu ezta kontsumizino barririk zerbitzatu, eta establezimendu guztiak 01:00etan guztiz zarratu beharko dabe beranduen jota.
- Establezimenduak ezingo dira 06:00ak baino arinago zabaldu.
- Diskoteka eta gaueko aisialdiko erabilera debekatuta dago eta, ondorioz, ezingo dira III eta IV kategorietako jarduera bereziak garatu. Hori horrela, III eta IV kategorietako lokalek, II kategoriako jarduerak burutu ahal izango dabez, aurreko ataletan zehaztutako muga eta ordutegiekaz bat.
- Edozein kasutan Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emondako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.

BIGARRENA: Erabagi hau ostalaritzako establezimendu guztieri jakinaroztea.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, ATB sailari, Turismo Sailari eta Udaltzaingoiri erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Erabagia Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea.

BOSGARRENA: Hurrengo Tekiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

| | | |
|--|--|---|
|  | Agi Dnu Bermeoko dala unaren egutza elektronikuan zuzenean dago. | |
| | Kodua 07740640360039781410201 | |
| Sinadura eta data | | |
| ARITZ ARAROA CAGUIARIENSE BERMEOKO ALKATEA - 20/05/2020 | | |
| Organizazioaren izena: ORGANIZATIBONOCENTRIFERVALES.A0137260 OIZENPE S.A. C.V.E.S - 20/03/2020 | | |
| 05/25/20 | | |
| EXPEDIENTE 2020/DA/00044 | |  |
| Gizona: ERRIK JARR | | |
| Gizona: Bermeo | | |
| Erreklamazioaren IDA Erreklamazioaren IDA | | |

